



Apirilaren 27ko Getxo Meeting: Kolaboratuko dugu?

Hamabost egunez behingo Getxomeeting topaketek helburu dute esperientziak parekoen artean partekatzea, hau da, udalerriko ekintzaile eta enpresen artean, euren artean sare bat osatu eta ikasketa kolaboratiboa eraiki dezaten.

Saio guztietan beti jende berria datorrenez geurera, enpresa bakoitza aurkezteko dinamikak egiten ditugu. Azkenengoan, sinboloak baliatu genituen. Parte-hartzaileek binaka kontaktu zioten elkarri beren istorioa, eta bikotearena entzun zuten. Horrela, jabetu ziren haien proiektua saltzen duten moduz eta ohartarazi zuten zein alderdi indartu behar duten euren hitzaldietan.

Behin aurkezpenenak amaituta, panel bat sortu zuten enpresa eta proiektu parte-hartzaile guztiekin, eta horien arteko lotuneak ezarri zituzten. Parte-hartzaile bakoitzak elkarlanerako proposamenak egin zituen bateratutako proiektuen harira.

Saio horretan, sinergia interesgarriak eratu ziren. Kaferako atsedena *networking*a modu erlaxatuagoan egiteko esparrua dugu.

Besteak beste, ondorio hauek nabarmendu ziren saioan:

- Zenbait lotune errepikatu dira, eta horietarako ekarpen berriak egin dira.
- Belaunaldien arteko esparrua denez gero, oso aberasgarria gertatzen zaie parte-hartzaile guztiei.
- Saio guztiak desberdinak dira eta hainbat gai jorratzen dira; beraz, parte-hartzaile guztion artean geure ezagutzak areagotzen ditugu.
- Nabaria da ekarpenak egiteko eta elkarren artean laguntzeko nahia handia dela, oso energia ona sortzen da horrela.

Hurrengo saioa maiatzaren 11n egingo da. **Saio berezia** izango dugu hori. "Erronkak" landuko ditugu: enpresa nahiz ekintzaile parte-hartzaileek euren enpresa eta proiektuei lotutako arazoak planteatu eta partekatuko dituzte, elkarrekin konponbideak lantzeko asmoz.

Saio bakoitzerako izena eman beharra dago, baina saio bat baino gehiagorako eman dezakezu aldi bakoitzean. Bi ostegunik behin egiten dira, 12:00etatik 14:00ra Getxolanen.

Izena eman dezakezu mezu bat bidalita getxolan@getxo.eus helbide elektronikora edo, bestela, 944660140 telefono-zenbakira deitu dezakezu. Nahiago baduzu, Getxolanera ere bertaratu zaitetzke (GetxoElkartegia; Ogoño 1, Areeta).

Zure zain izango gaituzu.